

XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

3868

HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 120/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuan, zeina 2016ko irailaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (169. zk.) argitaratu baitzen. Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

1.– Gaztelaniazko bertsioan, 2016/3812 (3/245) orrialdean, 2. artikulua 1. paragrafoan,

Honela dio:

«...en el Decreto 277/1196, de 26 de noviembre, por el que se aprueba el Catálogo de Juegos de la Comunidad Autónoma del País Vasco,...»

Baina honela esan behar du:

«...en el Decreto 277/1996, de 26 de noviembre, por el que se aprueba el Catálogo de Juegos de la Comunidad Autónoma del País Vasco,...»

2.– Gaztelaniazko bertsioan, 2016/3812 (3/245) orrialdean, 2. artikulua 2. paragrafoaren c) apartatuan,

Honela dio:

«Las máquinas de venta o expedición de productos a cambio de precio; aquellas de reproducción de imágenes o música: las destinadas al público infantil de imitación de vehículos o animales;...»

Baina honela esan behar du:

«Las máquinas de venta o expedición de productos a cambio de precio; aquellas de reproducción de imágenes o música; las destinadas al público infantil de imitación de vehículos o animales;...»

3.– 2016/3812 (237/3) orrialdean, 2. artikulua 3. paragrafoaren bigarren apartatuan,

Honela dio:

«Hala ere, Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 9.4. artikuluan xedatutakoaren arabera,... »

Baina honela esan behar du:

«Hala ere, Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 9.1 artikulua hiru garren apartatua xedatutakoaren arabera,...»

4.– 2016/3812 (237/37) orrialdean, 65. artikulua izenburuan eta 3. paragrafoaren a) apartatua,

Honela dio:

«65. artikulua.– Prototipoen proba.»

Baina honela esan behar du:

«65. artikulua.– Prototipoen proba komertziala.»

Honela dio:

«a) Proba komertzialean dagoen makina bakoitzak ustiapen-baimena altan duen beste makina bat ordezkatu du.»

Baina honela esan behar du:

«a) Proba komertzialean dagoen makina prototipo bakoitzak ustiapen-baimena altan duen beste makina bat ordezkatu du.»

5.– 2016/3812 (237/38) orrialdean, 67. artikulua 2. paragrafoaren f) apartatua,

Honela dio:

«Behe-tentsioaren arloan indarrean dagoen erregelamendu elektroteknikoa eta osagarriko jarraibide teknikoak betetzen dela adierazten duen deklarazioa; behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onesten duena).»

Baina honela esan behar du:

«Behe-tentsioaren arloan indarrean dagoen erregelamendu elektroteknikoa eta jarraibide tekniko osagarriak betetzen direla adierazten duen deklarazioa (842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onesten duena).»